

## KANALAK

Produktu bat sortzeak dituen eginkizunez gain, oso garrantzitsua da produktu hori saltzeko erosleengana iristea. Enpresa batek bere produktu edo zerbitzuak bezeroei aurkezteko, hainbat kanal erabiltzen ditu; komunikaziorako, salmentetarako, banaketarako, publizitaterako... Eta atal honetan guk zeintzuk erabiliko ditugun aurkeztuko dugu.

Hasteko, negozio gehienetan gertatzen den bezala, produktu berri bat asmatu eta sortzen denean, publizitate on bat egitea ezinbestekoa da; produktua ezagutu ezean, oso zaila baita inork erostea. Horregatik, arazo hori ez izateko, publizitate kanal batzuk finkatzea erabaki dugu.



Gure bezero potentzial gehienak gazteak direnez eta hauek egunerokotasunean sare sozialak erabiltzeko ohitura dutenez, gure publizitatea bertan egitea erabaki dugu : Intagram, Tik Tok, Youtube. Honetarako, ikus-entzunezko iragarki bereziak sortuko genituzke **@GDI** izeneko kontuan, eta konpasari buruzko informazioa emango genuke, aita nola funtzionatzen duen erakutsi ere. Honez gain, erosketa bat egiten duten bakoitzean pegatina bat oparitzea pentsatzen dugu, honetan gure enpresaren izena agertuko da nahi duten lekuan itsatsi dezaten.

Bestalde, batxilergoa eskaintzen duten eskola guztiei, mezu elektronikoen bidez gure produktuaz hitz egingo diegu, argazkiak eta bideoak bidaliz eta beraien ikasleei informatzeko eskatuz. Hauei konpasa gustatzen bazaie, %75 eko deskontua eginez, bat erosteko aukera emango diegu eta hala eskolako ikasleei erakutsiko diete.

Komunikazio kanalarik dagokionez, gure enpresarekin harremanetan jartzeko gmail kontu bat edukiko dugu. Hau konpasen kaxen atzealdean egongo da idatzita, arazoren bat izatean idatzi ahal izateko. Bestalde, gure publizitate kanaletako deskripzioetan ere agertuko da. ([GDikonpasak@gmail.com](mailto:GDikonpasak@gmail.com))

Salmentei dagokienez, beste atal batzuetan aipatu dugun bezala, gure konpasa hainbat denda fisikotan eta internet bidez salduko dugu, erosterako garaian aukera handiagoak edukitzeko.

Aldi batetik, produktua Internet bidez salduko dugula esaten dugunean, Amazon izeneko plataforman salduko dugula esan nahi dugu. Bertan saltzearen erabakia egin dugu, produktu bakarrarentzat webgune bat sortzeak ez duelako merezi eta gainera, geroz eta ezagunagoa denez, jendearen konfiantza irabazteko. Beraz gure salmenta kanaletako bat Amazon da.

amazon.es

The image shows a screenshot of the Amazon account creation page. The title is "Crear cuenta". There are four input fields: "Nombre", "Correo electrónico", "Contraseña", and "Confirma tu contraseña". The "Contraseña" field has a note: "Al menos 6 caracteres" and "La contraseña debe tener 6 caracteres como mínimo." At the bottom, there is a yellow button that says "Crea tu cuenta de Amazon".



Bestalde, gure beste erosketa kanala denda fiskoak izango dira. Esan bezala, gure produktua gehienbat Espainian bizi direnei zuzenduta dago, eta beraz bertako hainbat denda fisikotan salduko dugu. Denda horiei dagokienez, konpasak saltzeko denda bakar bat aukeratzea oso zaila da. Espainia osoan zehar, milaka denda txikik eta handik saltzen dituzte hainbat "eskola material" eta bakarrean salduko bagenu, gure produktibitatea oso kaxkarra izango litzateke. Ondorioz, elkarteak atalean azalduko den bezalaxe, guk Milan enpresarekin dugu akordio bat, gure konpasak beraien markakoak direlako, eta horregatik, beraien katalogoan gehituko dute hau, eta beraiekin lan egiten duten denda guztietan egongo da erosteko aukera. Hau da, beraien ordezkatzailleekin egingo dugu lan.



Gure banaketa kanalarri dagokionez, Correos izango dela erabaki dugu, gehien bat gure bi herrietan bulego bana dituelako. Beraien lana, guk bidaliko ditugun bi kaxa motak eramatea izango da. Alde batetik, kaxa pertsonal eta txikiak emango dizkiegu Amazon-en bitartez eskatzen digutenaren arabera, bertan saldu arren, gu enkargatuko baikara bidalketak egiteaz. Hau da, beraiek zenbat eta norentzat esango digute eta guk bidaliko ditugu. Bestalde, aurretik aipatutako dendetara kaxa handiak eramango ditugu, beraiek biltegietan eta dendetan izan ditzaten.



Azkenik, gure herriko dendei guk geuk eramango dizkiegu beraien dendetara kaxak, horrela salmentei buruzko informazio gehiago lortu ahal izateko. Eta dena ondo badoa, etorkizunera begira, gure online-salmenta Europar Batasunera hedatzea gustatuko litzaike.

